

**ESTATUKO ITZULPEN SARIAZ
(SENTIMENDUAK ETA GOGOETAK)**

Hedabideen zurrunbiloan berez-berez eta nahi gabe murgildua eta astindua izan ondoren, neure onera etorri naizela dirudi. Orain, gertatu dena, neure bakardadetik eta ikuspegitik, geure-geurea dugun *Karmel*-i kontatzen ari naiz. Izan ere, gertakari batzuen oharrak idazten ditugu, apunteak hartzen ditugu, denborak gauza ahaztuen zabortegira bota ez ditzan.

Nik arrotz ikusi dut neure burua hedabideen aurrean, horretara egin gabe nagoelako eta nire izaera bestelakoa delako. Hor sartua izan naizenez gero, ahal bezain ongi moldatzen eta erantzuten saiatu naiz... Nori eta niri gertatu behar hau, nioen neure baitan. Behin baino gehiagotan etorri zait burura goitik seinalaria ez ote zen hau guztia, Santa Teresa, emakume harrigarri hau, gure euskal kulturako jendeak pixka bat ezagut dezan.

Bai, azaletik begira, Santa Teresa gaztelaniazko klasiko go-renetakoa izanik, itzuli beharrik ere ez zen, euskaldun guztiok gaztelania dakigulako. Baina Santa Teresa euskaraz, gaztelaniatik fidelki itzulia izan arren, beste gauza bat da. Jaki bera, baina gure erara prestatua eta gure mahaiian zerbitzatua; horri beste zapore bat hartzen diogu euskal mahaikideok.

Honen harian, sarrera orokorrean idatzi nuen uraren irudia erabiliz, eta pasarte hura ekarri nahi nuke hona. Honela dio:


“Santa Teresa bezalako emakume bat (hain handia eta hain harrigarria) euskal letren plazara ez agertzea, hutsune larria izango litzateke.

Itzulpena esaten dugu, hitz bakar batez eta nolabait adieraztearren; baina itzulpen soila baino gehiago eskatzen zaigu. Santa Teresa euskalduntzea, geurera ekartzea, erdal urak euskal ur bihurturik, gure uharkara eta gure moldeetara bideratzea. Bestalde, honelako lan bati ekiten diogunean, apurka-apurka eta ia konturatu gabe, pertsonaiaren barruan sartzen gara, edota pertsonaiak berak hartua ikusten dugu geure burua eta, Santa Teresaren kasuan, zein handia den konturatzeko gara; harenganako mirespena sortzen da”.

Inprimategitik ekarri berri –labetik hara– liburu mardul eta sotila eskuetan hartu nuenean, gainetik irakurri eta ederretsi nuen. Gurasoa bere ume jaioberria eskuetan lehenengoz harturik izan ohi den antzera izango zela, iruditzen zitzaidan. Eta hunkitu egin nintzen eta neure buruari galdetu: *nik egin dut hau...?* Bai, baina goikoen eta behekoen laguntza izan dut. Behekoena izan dudana ziur dago eta goikoena izan dudana are ziurrago, frogatzerik ez badut ere.

Lana kontuz-kontuz eta maitasunez egina da. Artisautzalan. Hitzezko harri bakoitza poliki-poliki landuz, kolpe txikiz eta ukituka bakoitza bere tokian ezarriz, eraikia. Hurbilekoen eta urrunagokoen laguntzaz. Laguntza hau Santaren testuak ongi ulertu eta interpretatzeko zen batez ere, haren zenbait pasartetan ongi ulertzeko zailtasunak eta ilunguneak sortzen baitira. Ez, beharbada, irakurtzeko eta hariaz jabetzeko, baina bai itzultzeko. Teresa nahiko sintetikoa da; berari oso ezagun zaion testuinguruan ari da idazten; guri, ordea, falta zaigu testuinguru hori eta gaztelaniatik urruti den alemaneko itzulpenean bilatu izan dugu Julen Urkizaren bidez; hala ere gauzak argitzen ez zirenean, Burgosko Tomas Álvarezerengana jo izan dugu, bera baita ziur asko Santa Teresaren gaietan aditurik handiena gaur egun.

SANTA TERESA JESUSENA



IDAZLAN GUZTIAK

**Itzultzailea
Luis Baraiazarra**

Itzulpen sari horretaz idatzi diren gauza batzuk

Azaroaren 10eko *Berria* egunkarian Joxerra Gartziak idazten du. Orain dela hamazazpi urte bera epaimahaiko kide zela gertatutakoa kontatzen digu. Euskaltzaindiak eskaturik joan zela eta itzulpen sarirako euskarazko bi hautagai eraman zituela. Era berean, gainerako epaileek euskara ez zutela jakingo eta, gomendiozko bi gutun aldean harturik abiatu zela Madrilerantz. Bata Anjel Lertxundirena zen eta bestea Bernardo Atxagarena. Lehenak “itzulpengintzak euskararen normalizazioan izan duen eragin erabakigarria” azpimarratzen zuen; bigarrenak, berriz, hautagai ziren bi euskal itzulpenen bikaintasuna agertzen. Epaia etsigarria izan zela dio, lehen bozketan beraren (Joxerraren) boto banarekin baztertuak izan baitziren. Beraren protesten ondoren, hurrengo bozketarako onartu zituztela, baina bigarrenean ere emaitza bera...

Bere esperientzia garratz horren eraginez-edo, hau dakarkigu mahai gainera:

Iruditzen zait euskarazko itzulpenen kasuan benetako eztabaida hauxe dela: baldintzak aldatu ezean, merezi al du lehia itxura egiten jarraitzea? Sariketa horretan lorontzi gisa egoteari uko egitea ez al litzateke, bere xumean, duintasunaren alde jokatzeko modu bat?

Gauzak orduan gertatu ziren bezala gertaturik, arrazoizkoa ematen du galdera hori egiteak, baina oraingoan ez dira hala gertatu, bestera baizik, *Teresa Jesusena Idazlan Guztiak* liburuari itzulpen hoberenaren saria eman baitiote, nahiz eta gero baliogabetu, baldintza bat betetzen ez zuelako. Ez dakit nik baldintzak pixka bat aldatu diren ordurik hona, ezta horrelako mahai batean Euskaltzaindiaren ordezkaria euskaltzainburua bera izateak izan dezakeen eragina; uste dut izan duela eragina, bozketaren emaitzak hala frogatzen baitute; eta handiagoa, beharbada, gainerako mahaikideei berak daraman hautagaia dela hoberena buruan sartzeko izan dezakeen trebetasun eta ahalmen moralak.

Esperantza pixka bat dagoen bitartean, uste dut zirrikitu guztiez baliatu behar dela han egoteko eta gure lanik hobere-nak han erakusteko. Hori egin du Euskaltzaindiak, Andres Urrutia buru dela eta nik eskertzen diot bihotzez. Batzuek film hau gaizki amaitu dela uste izan arren, guztia onerako izan delakoan nago. Etorriko naiz berriro hau gehiago zehaztera, baina noan orain beste iritzi bat biltzera.

Gontzal Mendibil kantari eta idazleak sinatzen duen iritzi-artikuluua bidali zidan adiskide batek. Donostian bizi da eta *Diario Vascon* agerturiko bertsioa bidali zidan, 2016ko azaroa-ren 11koa. Bilboko *El Correon* ere agertu zela esan didate. “¡Llora Santa Teresa!” du izenburua. Gure inguruko askori atsegina izan zaiela sumatu dut. Iritzi-artikuluak kritika zorrotza egiten die saria eman eta kendu egin dutenei, itzulpen hobere-naren saria gaztelaniatik euskarara egindako *Santa Teresa Jesusena – Idazlan guztiak* liburuari eman eta gero saria baliogabe utzi dutenei. Salaketa-aire garbi eta zorrotza du; salaketa-airea, kasu honetan nirekin egin dutenagatik eta, oro har, gaztelania ez den estatuko edozein hizkuntzari eta euskarari bereziki ematen dioten tratua eskasagatik. Hona, neure era-ra euskaraz jarririk, iritzi-artikulu horren hasiera:

Saria horrela baliogabetzea eskandaluzkoa da. Sekula entzun ez dena, dio lagun batek, baina ez, hori baino gehiago da, gauza guztiz larria da (...).

Beste bi pasarte ekarriko ditut. Euskaraz jarririk, lehenengoak hau dio:

Bost urteko lan eskergea eta zirraragarria, 1.852 orrialde, eta poesia metrikari itzulua, hor dago hori, eta ziur autoreak ez zuela uste izango era honetako saria jasoko zuenik. Merezia zuelako ematen diote, baina akats politikoengatik kentzen; bai, argi eta garbi diot, akats politikoengatik kentzen. Eta jaiki egiten naiz intolerantzia eta bidegabekeria honen aurka.

Azkenerrantz, beste pasarte batean hau dio eta hitzez hitz ekarriko dut:

“Hoy, Santa Teresa de Jesús debería estar feliz porque le hayan traducido con dedicación, con amor y con tanto esmero a un idioma que en sus tiempos existía y bien que existía, pero llora entre sus pucheros, siente que le han hecho un pucherazo”.

Bai, nik ere sentitu dut Gotzalek zorrozki adierazten duen barne-samin hori eta umeari gozokia eman eta ahotik kentzen dioteneko irudia etorri zitzaidan burura. Baina, gehienbat ez da izan ni neugatik, nik pozik, maitasunez eta ametssez beterik jardun baitut lan honetan, lan luzea eta neketsua izan arren; beste batzuegatik hartu dut pena: etxeoengatik, karmeldarregatik, Euskaltzaindiagatik eta obra hau lau haizetara ateratzen saiatu direngatik, batez ere euskal letregatik, obra bat halako sariketa batera eramaten denean, gure kulturaren eta gure herriaren izenean eramaten baita.

Beste iritzi batzuk ere agertu dira, esaterako, azaroaren 4ko *Deia* egunkarian, sariaren biharamunean, zalaparta sortu ondorengo goizean. Uxue Razkin kazetariak sinatzen du eta nire sentimendu eta iritziez gain, Andres Urrutia eta Adolfo Arejita euskaltzainen adierazpenak biltzen dira. Hona hemen hitzez hitz datorrena:

“El presidente de Euskaltzaindia, Andres Urrutia, destacó el mérito del escritor meñakarra. *Más allá del trabajo poético, ha sido un hombre que ha trabajado e impulsado el liderazgo del euskera*. Por su parte, el euskaltzaina Adolfo Arejita alabó el trabajo *inigualable* que ha realizado el escritor y traductor de Meñaka. *Traducir al euskera de hoy las obras completas de Santa Teresa de Jesús, una de las obras cumbre del castellano clásico, es un trabajo muy arduo y difícil*.

Para el euskera, la tarea realizada es una aportación *inigualable*, ya que pone a la lengua vasca en un nivel literario de gran altura”.

Eskertzen ditut itzulpenaz eta itzultzaileaz hor esaten diren hitz gozoak; are gehiago halako pertsona jantziengandik etorrira; bihotz-altxagarri dira, batez ere saria baliogabetu zuten unerako.

Mezu pertsonalagoak ugari iritsi zaizkit. Guztien artetik hiru hauek hautatu ditut:

- *Merezimendu osoz eskaintzen dizugu saria euskaldunok, Madriletik ezer onik etorriko zain egon gabe. Biba zu!!*
- *Zure itzulpenak sariari mesedea egiten dio.*
- *Ekina egina da. Zorionak eta eutsi goiari!*

Onerako ez ote da izan?

Irudipen hori dut eta beste batzuek ere hala esan didate, egin didatenagatik samina arintzeko izan ez bada behintzat.

Zalaparta horrek pertsonaia bera (Santa Teresa) eta euskal itzulpenaren maila ona komunikabideetatik zabaltzeko abagunea eman du. Ávilako Santa jaio zeneko bosgarren mendeurrena amaitu eta urtebetera izan da hau guztia. Mendeurrenean barrena, asko saiatu ziren hura aipatzen eta jendeari haren berri ematen. Hitzaldiak, erakusketak, otoitzaldiak, aldizkarietako idazlanak... hainbat ekintza eratu eta gauzatu ziren batez ere karmeldarrak, haren seme-alabak, bizi diren inguruneetan. Guk gauza iraunkorragoa egin nahi genuen haren omenez eta, bide batez, aukera horretaz baliaturik, ekarpen eder bat gure herriari eta euskal letrei. Hala sortu zen asmo hau. Sarrera orokorreko pasarte batean hau idatzi nuen:

“Mendeurren honek bultzada emanik eta handik eta hemendik kontzientzia bizkortzera etorritako ziztadei erantzunez, ekin nion, era berean nekagarri eta zirrargarri gertatu zaidan lan honi. Izan ere, behin egin zidaten galderari erantzunez esaten nuenez, ‘geure mugak aitortuz eta apaltasunez,

baina emakume miresgarri hau euskal letretako plazara agertzea, plaza txikitxo bada ere, ez dela gutxiestekoa uste dut; are gehiago, ekarpen ederra izango dela'. Hori izan nahi luke gure argitalpen honek: santa Teresa oso-osorik, *Gutunak* ere barru direla, liburuki bakar batean, euskal letren plazara eta euskaldun guztientzat eskuragarri agertzea”.

Liburua buruturik eta argitaraturik zegoenean, beste batzuk saiatu dira honen berri ematen. Etxetik bertatik hasita, Patxi Uribarren euskaltzaina izan da horietako bat eta bera partaide den elkarte edo taldeetan erakutsi zuen eta eskuratzeko bideak erraztu. Hiru bat idazlan ere idatzi zituen Itzultzaileen Elkarteko *Senez-en*, *Hemen* erlijio gogoetarako aldizkarian eta gure *Karmel* honetan. Gero Euskaltzaindiak hartu du gidaritza eta berak eraman du kanpokoek ere ikus dezaketen gunera, itzulpen sari nazionalera aurkeztuz. Hortik honakoa ezaguna da guztientzat. Baina saria eman eta gero baliogabe uztearen ondorioz, hautsak harrotu dira, esan ohi denez, eta Santa Teresari eta itzulpen honi sekulako propaganda egin zaio.

Horregatik esan dut onerako ez ote den izan gertatu dena... Jakina, alde txarrak ere izan ditu, bistakoak direnak; dena dela, gertakarien alde ona bilatzen saiatu behar dugu. Jainkoak lerro okerretan ere zuzen idazten dakiela gogoratzen zidan adiskide batek. Hemen hala gertatu dela dirudi: Santa Teresa euskal letretara ekarri dugu, baina ez liburutegiko apal batean ahaztua izateko, gure letren plazara arranditsu sartzeko baizik. Eta liburuko eskaintzaren bertsotxoaz amaituko dugu:

*Betor gure baratzera
baren goitiko ibintza,
euskal letrak gozatzera;
isur bedi goi-jakintza,
Teresanetik gurera.*

Luis Baraiazarra Txertudi